Eskerrik-asko

Bizitzan, sarri, darabilgun itza da eskerrik-asko. On aldietan dau bere oroit ordua. Nai batek, nai askok batera on-egikeran, eskerrak damotsekuz bakarrari bezela taldekoei be. On egiña, egiz, saritu bearrezkoa da. Ta gizon zuzenak olantxe, eskertu ta goratuten dakie lagun onaren bearra. Ona ta aurrerapidea, berez, goragarri dira, bizitzaren sustraiari erantzuten doaz-ta.

Ona artukeran, esker-gabeko agertzea, kaskarkeri aundia litzake. Gizarteko giza-legeari ta bear-bada, zorraren legeari ez dautso erantzuten. Zordun geratzen da orduan. Zorraren durundia, iñoz, ez da izan ots egokia gibel aundiantzak izan ezik.

Lege au dala-ta, nik bs bardiñak nori eskerrak emon. Bizitzako joan-etorria ain askoren artekoa izanik, askoren ona artzen dau ta mesede guzti orrek artuaron egiari erantzunez, eskerrak emotera beartzen nabe.

Baiña arturiko on guztink be bardiñak ez jataz. Guztiak on izanik, batzuk bizitzaren muin izan jataz. Zorra be ba ez-bardiña jat. Askoz aundiagoa.

Z. Argiara euskal idazkaiak bialtzen asi nintzanetik urte mordoxka polita igaro da. Egia da, lenengoan lan bi edo iru onartu eustezan, baiña, laster, beste bizkaitar askoreñak bezela, lurpera botaten asi zinan nire lanak. Aukera asko dagoran nire lanak. Aukera asko dagonean, jokabide orrek autu bearrekoak izaten dira lanaren onerako, ta emen, euskal-giroaren aurreratapiderako. Ori dala-ta, gora bera, oando ikusirik, nere eskerrik garonak tsuenak damaizkiotet Gipuzkoan dituelan lagun berezi oiei.

Orain nere barruan dodan arantza-miña agertzera noa. Prailleen eskuetan egoan errebista batetik sortu zala oraingo Z. Argia, entzun izan dogu. Au olan dalarik, olako eskuetan dagon izpirikan batek egin dau jendeakiko barrikaren zabaltzeko lege orri kontra jo dot. Jaunak, ...ter, ...eat ...ri bemesede ...Arek bestelak bai ...horenak baiño...

Egiz, nire bidea ori ez da. Ta eskerrak, garaiz, baztertu ninduzuelako.

Gero, andik lasterrean, «Anaitasuna» ra jo neban. Alan-bearrez,